

Kidegoaren gehiengo zabalak Herrigaia ponentzia babestu du

2948 akreditatutak (%71) egin du Herrigaia ponentziaren alde, 919k (%22) Lurrari Lotuz osoko zuzenketaren alde eta 297k (%7) zuri bozkatu dute.

Bestalde, parte hartzea handia izan da. 4164 pertsonak bozkatu dute, erroldaren %52,5ak. Honek bultzada handia ematen dio Herrigaia ponentziak jasotako proposamen politikoari.

Herrigaia hastapenik eraikuntza kolektiboa izan da. 500 buruz buruko elkarrizketen, dozenaka herri batzarren eta udaran egindako bi Nazio Topaketan emaitza, eta hala izango da aurrerantzean ere. Eztabaida prozesuak aurrera jarraitzen du. Abenduaren 5a bitarte Herrigaia ponentziari zuzenketa partzialak egiteko aukerak irekita segitzen du. Abenduaren 13an jasotako zuzenketa partzialen Memoria akreditatuen esku jarriko da eta abenduaren 17tik 19ra bozkatu ahal izango da.

Errolda <small>Parte hartzeko eskubidea dutenak</small>	Parte hartzaileak	Emandako botoa	Herrigaia	Lurrari Lotuz	Zuri
7936	4556	4164	2948	919	297
		%52,5	%71*	%22*	%7*

* Emandako botoaren gaineko ehunekoak dira.